FUNDACIÓN BALUARTE FUNDAZIOA

Temporada principal
Denboraldi nagusia
24-25

DANZA | DANTZA

# MOMIX: ALICE

10/12
19:30



**Moses Pendleton**
Director artístico |
Zuzendari artistikoa

## PRIMER ACTO | LEHEN EKITALDIA

**En la madriguera del conejo**
- Un día de verano
- Alicia en la madriguera del conejo
- Charco de lágrimas
- Los Tweedles
- El gato de Cheshire
- Consejos de una oruga
- La cuadrilla de la langosta Madhatters
- La Reina de Diamantes
- Las Reinas de Tréboles y Picas
- La Reina Loca
- Espejos agrietados

**Untxiaren gordelekuan**
- Uda-egun bat
- Alizia untxiaren gordelekuan
- Malko-putzua
- Tweedletarrak
- Cheshire Katua
- Beldar baten aholkuak
- Otarrainaren koadrila Madhatters
- Diamante erregina
- Hirusta eta Pika erreginak
- Erregina zoroa
- Ispilu pitzatuak

**INTERMEDIO**

## SEGUNDO ACTO | BIGARREN EKITALDIA

**A través del espejo**
- Hay otra orilla
- En el bosque
- El lobo la espió
- Mirando a través de las vidrieras
- Jardín de osos molares y otras criaturas
- La falsa tortuga desinflada
- El juicio de las cartas caídas
- Lecho de rosas
- Pregúntale a Alicia

**Ispiluan zehar**
- Bada beste ertz bat
- Basoan
- Otsoak zelatatu zuen
- Beirateetan zehar begiratzen
- Hagin-formako hartzen eta beste izaki batzuen lorategia
- Airea galdutako dortoka faltsua
- Karta erorien epaiketa
- Arrosa-geruza
- Galde iezaiozu Aliziari

**Duración I Iraupena** [90']

*-"¿Podría decirme, por favor, qué camino debo tomar desde aquí?".*
*-"Eso depende mucho de adónde quieras llegar".*
*-"No me importa mucho dónde...".*
*-"Entonces no importa el camino que tomes".*

*-"Esan diezadakezu, mesedez, zein bide hartu behar dudan hemendik?".*
*-"Neurri handi batean, nora joan nahi duzun, horren araberakoa izango da".*
*-"Ez zait gehiegi axola nora...".*
*-"Orduan, ez du axola zein bide hartzen duzun".*

***Lewis Carroll***
*(Alicia a través del espejo)*

Programa

# Equipo artístico y técnico | Talde artistikoa eta teknikoa



**Concebido y dirigido por**
**Honek kontzebitua eta zuzendua**
Moses Pendleton

**Directora asociada**
**Zuzendari kidea**
Cynthia Quinn

**Asistidos por**
**Hauek lagunduak**
Anthony Bocconi, Beau Campbell, Jennifer Chicheportiche, Samantha Chiesa, Heather Conn, Gregory De Armond, Jonathan Eden, Matt Giordano, Seah Hagan, Hannah Klinkman, Sean Langford, Heather Magee, Sarah Nachbauer, Jade Primicias, Rebecca Rasmussen, Colton Wall Y Jason Williams.

**Director de producción**
**Ekoizpen-zuzendaria**
Woodrow F. Dick II

**Equipo técnico**
**Talde teknikoa**
Maria Pinggera, Erik Fulk

**Diseño de iluminación**
**Argien diseinua**
Michael Korsch

**Collage musical**
**Musika-collagea**
Moses Pendleton

**Edición musical**
**Musika-edizioa**
Andrew Hanson

**Diseño de vídeo**
**Bideo-diseinua**
Woodrow F. Dick III

**Diseño de marionetas araña**
**Armiarma-txotxongiloen diseinua**
Michael Curry

**Diseño de vestuario**
**Jantzien diseinua**
Phoebe Katzin

**Construcción de vestuario**
**Jantziak eraikitzea**
Phoebe Katzin & Beryl Taylor

**Maestra de ballet**
**Ballet-maistra**
Victoria Mazzarelli

**Consultor de investigación**
**Ikerketako aholkularia**
Philip Holland

**Director de comunicación**
**Komunikazio-zuzendaria**
Quinn Pendleton

**Company Manager**
**Company managerra**
Paula Burns

**Bailarines**
**Dantzariak**
Jared Bogart, Heather Conn, Nathaniel Davis, Madeline Dwyer, Derek Elliott Jr., Hailey Green, Seah Hagan, Oksana Horban y Adam Ross.

# ALICE

Mezclando a la perfección ilusión, acrobacia, magia y fantasía, **MOMIX** hace volar al público por la madriguera del conejo en la nueva creación de **Moses Pendleton**, **ALICE**, una personal y totalmente libre adaptación de una de las historias más reconocibles, caprichosas, entretenidas y mágicas de la literatura universal: *Alicia en el País de las Maravillas,* publicada en 1865 por **Lewis Carroll**.

ALICE nos muestra a una Alicia en permanente transformación, un cuerpo sin límites definidos que crece, se encoge y vuelve a crecer en una danza de llena de magia y efectos visuales. En esta nueva vuelta de tuerca de MOMIX, los bailarines de Pendleton expanden sus propios cuerpos por medio de apoyos, cuerdas y los mismos cuerpos de otros bailarines, arropados por un impresionante despliegue de imágenes, espejismos, música, artefactos y el exquisito y deslumbrante vestuario creado por **Phoebe Katzin**.

En su camino a través del País de las Maravillas, la ALICE de MOMIX se va a encontrando con multitud de personajes: el Conejo Blanco, el Sombrerero Loco, el Gato de Cheshire, la implacable Reina de Corazones (*"¡Que le corten la cabeza!"*) y la insolente Oruga Azul, a la que Alicia encuentra sentada sobre una seta fumando un narguile y que, tras mucho discutir, sugiere a la entonces diminuta niña que ingiera un cachito de dicho hongo si desea recuperar su tamaño habitual.

Con todos estos personajes y situaciones, el mundo de *Alicia en el País de las Maravillas* imaginado por Pendleton mantiene toda la fuerza de su hechizo. *"No pretendo volver a contar toda la historia de Alicia"*, dice Pendleton, *"sino utilizarla como punto de partida para la invención. Tengo curiosidad por ver qué surge de ahí y mi curiosidad no deja de crecer a medida que voy estudiando a Lewis Carroll, que fue un apasionado fotógrafo como yo mismo"*.

La historia de Alicia está llena de imágenes y de lógica absurda: antes de que existiera el surrealismo ya existía ella. ALICE es una invitación a inventar, a dejar volar la imaginación y jugar al aire libre. *"Pregúntale a Alicia"*, cantaba **Grace Slick** en *White Rabbit*; también decía *"alimenta tu cabeza"*.

Pendleton continúa: *"Puedes ver por qué creo que Alicia encaja de forma natural en MOMIX y es una oportunidad para ampliar nuestras miras. Quiero llevar este espectáculo a lugares donde no hemos estado antes en términos de fusión de danza, iluminación, música, vestuario e imágenes proyectadas"*. Llena de esplendor visual y sorprendente movimiento creativo, Alicia revela que nada en el mundo de MOMIX es lo que parece.

Como en todas las producciones de MOMIX, nunca se sabe lo que va a pasar. El público se embarcará en un viaje mágico, misterioso, divertido, excéntrico y mucho más. Mientras Alicia cae por la madriguera del conejo y experimenta todo tipo de transformaciones, usted también lo hará.



Ilusioa, akrobazia, magia eta fantasia maisuki eta ezin hobeto nahastuta, **MOMIX**ek publikoa hegan eramango du untxiaren gordelekuan Moses Pendletonen sorkari berrian, **ALICE**n. Hain zuzen, literatura unibertsaleko istorio ezaguterraz, apetatsu, entretenigarri eta magikoenetako baten moldaketa pertsonala eta erabat askea da: *Alizia herrialde miresgarrian,* **Lewis Carroll**ek kaleratua 1865ean.

ALICEk etengabe eraldatzen ari den Alizia bat erakusten digu, muga zehazturik gabeko gorputz bat, hazi, txikiagotu eta berriro hazten dena, magiaz eta efektu bisualez betetako dantza batean. MOMIXek torlojuari koska bat estuago egiteko saiakera honetan, Pendletonen dantzariek beren gorputzak hedatzen dituzte euskarrien bidez, soken bidez eta beste dantzari batzuen gorputzen bidez, irudien, ispilatzeen, musikaren, artefaktuen eta **Phoebe Katzin**ek sortutako jantzi dotore eta liluragarrien erakustaldi zirraragarri batek lagunduta.



Herrialde miresgarrian egiten duen bidean, MOMIXen ALICEk pertsonaia ugari aurkituko du: Untxi Zuria, Kapela Zoroa, Cheshire Katua, Bihotz Erregina gupidagabea (*“Motz diezaiotela burua!”*) eta Beldar Urdin ozarra. Aliziak azken hori perretxiko baten gainean eserita aurkituko du, nargile bat erretzen eta, luze eztabaidatu eta gero, orduan ñimiñoa den neskatoari iradokiko dio onddo horren zatitxo bat irensteko ohiko tamaina berreskuratu nahi badu.

Pertsonaia eta egoera horiekin guztiekin, Pendletonek herrialde miresgarrian irudikatutako Aliziaren munduak bere aztikeriaren indar osoari eusten dio. *“Asmoa ez da Aliziaren istorio osoa berriro kontatzea”*, argitzen du Pendletonek, *“baizik eta asmaketarako abiapuntu moduan erabiltzea. Hortik zer sortzen den ikusteko jakin-mina dut, eta nire jakin-mina handituz eta handituz doa Lewis Carroll aztertzen noan neurrian. Carroll argazkilari sutsua izan zen, ni neu bezala”.*

Aliziaren istorioa irudiz eta logika absurduz beteta dago: surrealismoa existitu aurretik, Alizia existitzen zen. Asmatzeko, irudimenari hegan egiten uzteko eta aire zabalean jolasteko gonbidapena da ALICE. *“Galde iezaiozu Aliziari”*, abesten zuen **Grace Slick**ek *White Rabbit*en; *“elika ezazu zure burua”* ere esaten zuen.

Pendletonek jarraitzen du: *“Ikus dezakezu zergatik uste dudan Alizia MOMIXekin modu naturalean bat etortzen dela, eta gure xedeak zabaltzeko aukera bat da. Dantza, argiak, musika, jantziak eta irudi proiektatuak bateratzearen arloan lehenago egon ez garen tokietara eraman nahi dut ikuskizun hau”*. Distira bisualez eta sortze-mugimendu harrigarriz betea, Aliziak erakusten du MOMIXen munduan ezer ez dela dirudiena.

MOMIXen produkzio guztietan bezala, inoiz ez da jakiten zer gertatuko den. Publikoa bidaia magiko, misteriotsu, dibertigarri, bitxi eta askoz ere gehiago batean barneratuko da. Alizia untxiaren gordelekutik erori eta mota guztietako eraldaketak izaten dituen bitartean, zuk ere izango dituzu.

## MOMIX: 40 años de innovación sin fin

Conocida internacionalmente por presentar obras de excepcional inventiva y belleza física, MOMIX es la compañía de bailarines-ilusionistas dirigida por el aclamado coreógrafo de Moses Pendleton. Además de actuar en escenarios de todo el mundo, MOMIX ha trabajado en cine y televisión, apareciendo recientemente en un anuncio nacional de ropa interior Hanes y en un anuncio de Target que se estrenó durante la emisión de la 67ª edición de los Globos de Oro.

Con actuaciones en la serie *Dance in America* de PBS, Antenne II de Francia y la televisión italiana RAI, el repertorio de la compañía se ha emitido en 55 países. La compañía se unió a la Sinfónica de Montreal en la película de Rhombus Media de *Cuadros de una exposición* de Mussorgsky, ganadora de un Emmy Internacional al Mejor Especial de Artes Escénicas, y fue distribuida en disco láser por Decca Records. MOMIX también apareció en IMAGINE, una de las primeras películas IMAX en 3-D que se estrenó en cines IMAX de todo el mundo.

Participando en el Homenaje a Picasso en París, MOMIX también fue seleccionada para representar a EE. UU. en el Centro Cultural Europeo de Delphi.

Con el apoyo del Scottsdale Cultural Council Scottsdale Center for the Arts de Scottsdale, Arizona, el Sr. Pendleton creó Bat Habits para celebrar la inauguración del nuevo parque de entrenamiento de primavera de los San Francisco Giants en Scottsdale. MOMIX ha recibido encargos de empresas como Fiat y Mercedes Benz, actuando en la celebración del centenario de Fiat en Turín (Italia) y en el Salón Internacional del Automóvil de Mercedes Benz en Fráncfort (Alemania).

Con una brillante utilización de luz, sombras, atrezzo y el cuerpo humano, MOMIX ha asombrado al público de los cinco continentes durante más de 40 años.

## MOMIX: 40 urte amaierarik gabe berritzen

Asmamen bikaineko eta edertasun fisikoko lanak aurkezteagatik ezaguna nazioartean, Moses Pendleton koreografo txalotuak zuzentzen duen dantzari-ilusionisten konpainia da MOMIX. Mundu osoko agertokietan aritzeaz gain, MOMIXek zineman eta telebistan lan egin du, eta duela gutxi agertu da Hanes azpiko arroparen iragarki nazional batean eta Targeten iragarki batean, Urrezko Globoen 67. edizioaren emisioan estreinatu zenean, hain zuzen.

PBSren *Dance in America* telesailean, Frantziako Antenne IIn eta Italiako RAI telebistan emanaldiak eginda, konpainiaren errepertorioa 55 herrialdetan eman da. Konpainia Montrealgo Sinfonikoari batu zitzaion Rhombus Media ekoiztetxeak Musorgskiren *Erakusketa bateko margolanak* suiteari buruz egindako filmean. Arte Eszenikoetako Berezi Onenaren nazioarteko Emmy saria eskuratu zuen, eta Decca Recordsek laser diskoan banatu zuen. Halaber, MOMIX IMAGINEn ere agertu zen, mundu osoko IMAX zinemetan estreinatu ziren aurreneko 3-Dko IMAX filmetako batean.

Picassori Parisen egin zitzaion omenaldian parte hartzen, MOMIX ere Delphiko Europako Kultura Zentroan Ameriketako Estatu Batuak ordezkatzeko hautatu zuten.

Arizonako, Scottsdaleko Scottsdale Cultural Council Scottsdale Center for the Artsen laguntzarekin, Pendleton jaunak Bat Habits sortu zuen, Scottsdalen San Francisco Giants taldearen udaberriko entrenamendu-parke berriaren inaugurazioa ospatzeko. MOMIXek beste enpresa batzuen enkarguak ere jaso ditu, hala nola Fiat eta Mercedes Benz enpresenak. Fiaten mendeurrenaren ospakizunean aritu zen Turinen, Italian, eta Mercedes Benzen Automobilaren Nazioarteko Erakusketan Frankfurten, Alemanian.

Argiaren, itzalen, atrezzoaren eta giza gorputzaren erabilera bikain batekin, MOMIXek bost kontinenteetako ikus-entzuleak harritu ditu 40 urtean baino gehiagoan.

# DANZA | DANTZA

FUNDACIÓN BALUARTE FUNDAZIOA

La Temporada principal 24-25 de Fundación Baluarte le ofrece otros dos espectáculos de danza en el Auditorio Baluarte.

Temporada principal
Denboraldi nagusia
24
25



## VERTIKAL

Compagnie Käfig

15/03
19:30



## CARMEN

Compañía Antonio Gades

30/05
19:30

FUNDACIÓN BALUARTE FUNDAZIOA


Calle Sandoval 6
31002 Pamplona-Iruña
948 229 217

www.fundacionbaluarte.com
info@fundacionbaluarte.com

fundbaluarte Fundbaluarte FundacionBaluarteFundazioa

FundacionBaluarte Fundación Baluarte


Reciba las novedades de Fundación Baluarte
y Orquesta Sinfónica de Navarra en su Whatsapp.
Envíe "alta" al +34 636 86 32 57
y agréguenos a su agenda.

Conozca nuestra
Temporada 24-25

Ezagutu gure
24-25 Denboraldia

Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua · Fundación "la Caixa" · Fundación Caja Navarra / Nafarroako Kutxa Fundazioa · Autopistas de Navarra · Mondragon


Este programa ha sido impreso con papel
proveniente de bosques gestionados de forma sostenible.

DL.NA 2323-2022